

B

BARREN

TOKIKOM

**“Txandakako Ingeniaritza
EHUn sartzea
oso aberasgarria izan da”**

Ixaka Egurbide, Txandakako Ingeniaritzako zuzendaria



ELGOIBAR
SAN FRANZISKO

Azken etxebizitzak
%4ko BEZarekin

Etxebizitzak
trastelekuarekin

150.000 €-tik aurrera
+ BEZ

Bukatutako eraikina
Sukalde ekipatua

Orain BAI!



Informa zaitez konpromisorik gabe

943 74 44 67



GABILONDO

AGENCIA INMOBILIARIA

C/ San Francisco 51, bajo.
Elgoibar

 **sukia**

Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

www.sukia.com

Itsasoan urak handi dire

Joan den astean lagun batek zera galdetu zidan: “Baina, hi, zer dela eta sartu haiz saltsa honetan?” “Eta nik, zer esango diat, ba... Nik neuk ere jakingo banu”. Egia esan, ez da bizpahiru hitzetan emateko erantzuna. Lehendabizi aipatu, EH Bilduk bere bilera batean erabaki zuenean Kanpo Harremanetarako Kontseilaritza sortu behar zuela, euskaldunok estatu ikuspegi batetik munduaren aurrean azaltzeko, nire gaztetako lagun zahar batek bota omen zuela nire izena. “Nik perfil horretako pertsona bat ezagutzen diat, baina ez zekiat horrelakorik onartuko duen”, izan omen ziren bere hitzak. Batzar horren ostean, senatari batek dei egin zidan, hauteskundeak bazetozela eta bilera egin behar zela adieraziz, entzuteko behintzat esateko zutena. Politikari ezagun bat etorri zitzaidan bulegora eta bere argudioak entzun ondoren, ea kontseilarigai izatea ontzat jo eta onartzen nuen galdetu zidan.

Ezustekoa hausnartu ondoren, zinez eskertu nizkion nitaz gogoratzea eta nireganako fede ona. Galdera batzuk egin nizkion eta horien artean, hauxe: “Zenbateko aukerak ditugu Gobernura ailegatzeko?” Eta politikariak: “Handik eta hemendik hamaikatxo ahaleginduko dira guri hesiak jartzen”. Beno, esan nion neure buruari, erronka galanta zeukak apustu honek! Zer esanik ez, baietz erantzun nion, ezetzak kontzientzi zama sortaraziko baitzidan.

Izan ere, itsasoan urak handi dire murgildu nahi dutenentzat.

Gaur lanera nentorrela, bulegoan sartzean nintzela, auzoko kapitan pilotu izandako erretiratu batek gelditu egin nau eta bere etxeko bost botuak guretzat direla esan dit. Nik ez nuen inondik inora gutarra zenik espero... Ilusioa.

Hartutako erabakiari irmo eusteko indarra berpiztu dit.

Jon Etxabe Jauregi



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan:
943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“EH Bilduk Kanpo Harremanetarako Kontseilaria sortu behar zuela erabaki zuen, euskaldunok munduan estatu ikuspegi batetik azaltzeko”

inBEG dependentzia

Urriak 13, 17:30ean
BARAKALDON

EKITALDI NAZIONALA

BOZKATU
ehbildu

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



ELGOIBARKO LEKIA



MENDAKO UDALA



AKE ARCO



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Oktoberfest elgoibartar erara

Zapatuetan kaleak Poliziaz, armaz, botaz, eta uniformeaz josiz, "elkarbizitza" hobetzen duzuelakoan zaudete agintariak? Ez, noski. Populismo merkea besterik ez da. Zenbat botu espero dituzue horren kontura? Denok dakigu, eta gazteak ez dira ergelak, hipokresia hutsa dela. Akaso instituzioek ez dute alkoholaren kontsumorik bultzatzen? Noiz da hurrengo garagardo festa? Nagusiek edan eta edan etxean, soziedadean, kalean, ospakizun guztietan eta gazteek *marroia* jan behar.

Errepresioa, ertzain pila kalera ateratzeak, bideokamerak... erantzun azkarrak esplikatzeko errazak, erruduntasuna besteengan jartzen dutenak. San Frantzisko kalea militarizatu dezakezue, baina zuen porrotaren irudia izango da. Herriko eta inguruko gazteak eta nerabeak kriminalizaten ari zarete. Txahala botatzeagatik edo txi-za egiteagatik? Zeinek babestuko ditu gazteak polizien ohiko gehiegikerietatik? Ez gaude edozein astakeria egiteko prest dauden milaka kriminelez inguratuta. Segurtasunaren diskurtso zigortzaile honen aurrean erantzun garbi eta ausart bat falta dugu. Ezkerreko alderdien isiltasunak ados daudela adierazten al du?

Ondo pasatzeko gogoia duten ehunka gazteen eta polizia autoritario andanen artean aukeratu behar badut, dudarik gabe, dibertsioarekin geratzen naiz. Utz ezazue bakean gazteria.

J.A. ☛

Mila esker

San Lazaro Egoitzaren izenean, eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiegu, urtean zehar, ekitaldiak, jaiak... antolatzen laguntzen diguten pertsona, talde eta erakunde guztiei.

Bidenabar, Nagusilan elkarteko boluntarioek, bereziki Elgoibarko taldekoek, egiten duten lan ordainezina eta eskuzabala azpimarratu nahiko genuke, baita hainbat elkartek gure egoiliarrekin izan duten bihotz-zabaltasuna ere. Bereziki, ondorengoak aipatu nahiko genituzke: Maalako jai batzordea, Errosario kaleko jai batzordea, Udal Musika Banda, I. Bereziartua Musika Eskola, Herri Eskola, Paentxi bikotea, Argia Taldea, parrokiako abesbatza, Miski-Peru, Azahar Taldea, Elgojaitza, San Bartolome parrokia, Anateusk, Galiza Etxea. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu, sarri askotan, bakarka eta

isilpean egoitzarekin elkarlanean diharduten beste hainbati. Azkenik, ezin aipatu gabe utzi Udalaren sailtetako langileek, gure lana egin ahal izateko, ematen dizkiguten erraztasun guztiak. Gure esker ona horientzat guztientzat.

San Lazaro Egoitza ☛

Bakea eta bizikidetz

Udaletik aurten bi parte-hartze ekimen jarri dira abian. Bat parte-hartzea arautu eta erabilgari egingo duen eszenatoki bat lortzeko. Hiru lan talde sortu dira, eta dagoeneko gainditu dira trebakuntza saioak. Bigarrena, bakea eta bizikidetzaren inguruan herrian hausnarketa egiteko asmoz, abenduan emango zaio uda aurretik egindako sarrerari jarraipena. Horri begira, herri-tarrak animatu nahiko nitzuke ariketa honetan parte hartzera.

Euskal gizartearen garapen iraunkorrerantz bakeak eta bizikidetzak duen garrantzia nabarmena da eta merezi du ariketa honetan saiake- ra bat egitea. Pertsonak dira indarkeriaren ondorioak jasan dituztenak, eta arreta erakutsi behar diegu: zintzoa, hurbila, argia, sinesgarria...

Garai bateko gertaerak gorapatzea beste batzuk justifikatzeko eta hauetaz ez hitz egiteko onar ezinezkoa da. Gerra zibila eta diktaduraren bitartez herri honek jasan zuenaren egia jakin beharra dago, eta baita ETaren indarkeriak sortu eta utzi duen kaltea ere. Indarkeria bizilagun izan dugu, eta horren bitartez giza eskubideen ukazioa. Eskubide politiko eta zibilak.

Gorrotoa eta tentsioa alde batera utzi behar ditugu, ETA guztiz desagertu behar da, giza eskubideetan oinarrituz presoak gerturatu eta askatu behar ditugu. Memoria arretaz landu behar dugu. Ez dago ezer justifikatu beharrik, indarkeria justifika ezinezkoa da. Memoriaren irakurketak, kaltearen eta berriz gertatu behar ez denaren inguruko adostasuna behar du. Bakeak memoria behar du, ez amnesia. Memoriak jatorria du. Norberak daki bere memorian zer dagoen. Ukatu al diezaiokegu bakoitzari bere memoria? Beharbada ez. Lortu dezakegu, memorian oinarrituz, giza eskubideen ukazioaren inguruko irakurketa adostu bat? Beharbada bai. Elkarren arteko errespetua behar dugu. Sinplea dirudien arren, errespetuak errekonozimendua dakar, eta hemen dator zailtasuna.

Alfredo Etxeberria ☛



**Amaia
Larrañaga**

Euskaltegietan 2012/13 ikasturtea martxan jarri berri dugu, eta, matrikulatu direnen artean, euskaltegira etortzeko erabakia hartzera bultzatu dituzten hainbat arrazoi entzun ditugu: umearekin eskolako kontuez jarduteko, etxeko giroan oztopo izateari lagatzeko, lana aurkitzeko, ingurukoei ulertzeko..., beraz, honek esan nahi du euskarak baduela bere lekua, nik, sari, pentsatu arren, urtea joan urtea etorri, ez dugula aurrera egiten.



**Jose Luis
Azpillaga**

Euskararen erabilera eskasa dela eta, zure ezkortasunarekin bat egiten dut, Amaia. Ni ere askotan harritu eta haserretu naiz, kalean euskara gutxi entzuten dudalako. Ez da sentimendu atsegina. Hala ere, tentuz jokatu beharko genuke, agian, gertaera horren arrazoiak eta ingurubarrak epaitzean. Izan ere, azken inkesta soziolinguistikoak eta zenbait adituk diotena sinestera, aurrera goaz euskararen ezagutzan eta, gutxiago bada ere, baita erabileran ere, batez ere, euskaldunok euskarari diogun atxikimenduari esker, gainera. Bestalde, euskara gutxi entzuten badugu, beharbada, Anjel Lertxundik dioen moduan, zer egiten ari garen gaizki galdetu beharko genuke.

Erradikala naizela zenbat aldiz esan didaten? Ez askotan, Amaia. Gehiago izan da neure sentipena. Hizkuntzaren kontzientzia izateak hainbat jarrera hartzera bultzatu nau: lehen hitza euskaraz egin, ordenagailuko edo telefonoko menuak euskaratu, hainbat erakunderekiko harremanak euskara hutsean egin..., eta batzuetan pentsatu izan dut kanpotik erradikaltzat hartuko nautela. Baina, orain, ez zait batere inporta. Tabernara joan eta zuzenean euskaraz eskatzen dut: Ebaki bat, mesedez. *Con leche normal o crema?* Normalarekin. Zenbat da? *Uno treinta.* Hartu. Okindegian: Ogi-barra integrala eta barra normala? (Ustekabean, euskaraz jarraituz) Besterik nahi duzu? Ez. Zenbat da? Bi hogeita hamar. Hartu, agur. Bai, agur... Oro har, euskaraz bizi naiz.

“Ez al da eguneroko kontua gure herrian bi euskaldun erderaz entzutea?”

Ezkontasun hau erabilera urriak sortzen dit, askok esaten badidate ere ez dela horren eskasa, baina, J.Luis, ez al da eguneroko kontua gure herrian, edozein ordutan eta lekutan, bi euskaldun erderaz entzutea? Izango dira erosoago jarduten dutenak, baina ez denak, ez horixe! Orduan, zerk bultzatzen ote ditu horretara? Interesanteago, inportanteago, jakitunago... sentiarazten ote ditu? Egia da Elgoibarren joera horrek haizea aldeko duela, eta, susmoa daukat haize hori gero eta indartsuagoa dela, nahiz eta joera hori duten gehienak euskararen aldeko azaldu. Zelan ulertzen da hau, alegia, euskararen alde daude, baina gutxien kostatzen dena ez dute egiten, hau da, ez dute barbarik egiten? Askotan inguruko ez dakitenei botatzen diete errua, baina denek dakitenean zer dela-eta erderaz? Zergatik seme-alabei, ilobei... euskaraz eta gurasoek, osaba-izebek... erderaz? Benetako harremanetan, alegia, harreman sakonetan, norbere hizkuntzan jarduteak demaseko pisua daukalakoan nago, eta hau jende askori entzun diodan kontua da, beraz, batek baino gehiagok galdetu beharko lioke bere buruari ea euren hizkuntza zein den, akaso, hausnarketa horrek jarrera aldaketa ekar liezaieke.

J.Luis, joera honen kontrakoan jardutearren, zenbat aldiz esan dizute erradikala zarela? Oraindik halakorik!

“Hizkuntzaren kontzientzia izateak hainbat jarrera hartzera bultzatu nau”

Horregatik, euskaltegira datozenei ere esan nahi diet euskara erabiltzeko aukera ugari ditugula Elgoibarren eta, nahi izanez gero, euskaraz bizi daitekeela. Gainera, zenbat eta gehiago erabili, orduan eta errazago egiten da euskaraz, ezta? Beraz, animo guztioi, eta telebistako Kerman famatuak dioen moduan: honekin edo harekin, baina egin!



MARI CARMEN FERNANDEZ DE JAUREGI

*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan*

Zure lagunak



Hiru urte bete ditu preso Arnaldo Otegik, eta salatzeko, hitzaldia eta elkarretaratzea antolatu ditu plataformak

Zapaturako antolatu dute elkarretaratzea, eta eguaztenerako lotu dute hitzaldia

Zapatuan, hilaren 13an, beteko dira hiru urte Espainiako Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epailearen aginduz, Espainiako Poliziak Arnaldo Otegi ezker abertzaleko bozeramailea atxilotu zuenetik. Operazio hartan Rafa Diez, Rufi Etxeberria, Sonia Jazinto, Arkaitz Rodríguez, Miren Zabaleta, Txelui Moreno, Amaia Esnal, Mañel Serra eta Ainara Oiz ere atxilotu zituzten, Batasunaren Mahai Nazional berria osatzea leporatuta. Haietako bostek, tartean, Otegik preso jarraitzen dute, eta hori salatzeko, Arnaldo askatu, politika askatu herri ekimenak hitzaldi bat eta elkarretaratzea antolatu ditu datozen egunetarako. Otegik preso jarraitzeko arrazoiak politikoak direla aldarrikatzen du haren aldeko plataformak

Zapatuan egingo dute elkarretaratzea, 13:00etan, Kalegoen plazan. Hitzaldia, berriz, eguaztenerako lotu dute, urriaren 17rako. *Kapitalismoaren Krisia* jarri diote izenburua, eta Nekane Jurado ekonomilari eta idazleak emango du. Kapitalismoaren bilakaeraren gainean gogoeta egitea proposatuko du Juradok, eta irtenbideetaz ere hausnartuko dute. Hitzaldia, Elgoibarko Kultur Etxean izango da, 19:00etan.

‘Dendak bizirik’ ekimenak izan duen harrerarekin pozik daude antolatzaileak

Txankakua merkatarik elkarrekin ‘Dendak bizirik’ ekimena antolatu zuen joan zen astebururako, eta ‘pozik’ agertu dira herritarrek emandako erantzunarekin. Barixakuan jende asko batu zen Kalegoen plazan Biraka dantza taldearen emanaldia ikusteko, eta batuka taldeak giro bikaina jarri zuen herriko kaleetan. Dendak gauean ere zabalik egon ziren, eta herritarrek berandura arte eduki zuten erosketak egiteko aukera. Zapatuan, bestalde, jende asko ibili zen stock ferian. Herriko merkataritza sustatzeko antolatu zuten ekimena, eta era batean edo bestean herritar askorengana iritsi direla adierazi dute antolatzaileak.



Deba ibaiari buruzko hitzaldia antolatu dute Elgoibarren hilaren 17rako

Ibai Lagun egitasmoaren barruan, Deba ibaia auzolanean garbitzeko ekimena eta ibaiaren gaineko hitzaldi sorta bat antolatu dituzte Elgoibarko Udalak, Debegesa Garapen Agentziak, Morkaiko Mendizale Elkarrekin eta Gazte Asanbladak elkarlanean, URA-Uraren Euskal Agentziaren laguntzarekin. Urriaren 20rako egin dute ibaia garbitzeko deialdia, eta antolatzaileek nabarmendu dute deialdi irekia dela eta nahi duen guztiak parte hartu dezakeela. Horren harira, arropa eroso eta zapata egokiak eramateko gomendioa egin diete interesatuei. Boluntarioak 11:00etan batuko dira Kalegoen plazan, eta Debe-

gesakoek han bertan banatuko diete garbiketa lanetarako beharrezkoa duten materiala: eskularruak, zabor-poltzak, guraizeak... Ondoren, 13:00etan, mokadutxoak ere izango dela aurreratu dute. Hala, Debegesako Garapen Jasangarirako departamentuak dei egin die herritarrei, haur nahiz helduei, boluntario gisa parte har dezaten. Hori bai, aurretiaz izena ematea eskatu die, besteak beste aseguruak eta luntxa prestatzeko ezinbestekoa zuelako zenbat jende batuko den jakitea. Interesatuek 943 820 110 telefono zenbakira deitu dezakezue edo debaibaia@debegesa.com helbidera idatzi, urriaren 18a baino le-

hen. 18 urtetik beherakoak heldu batek lagunduta joan beharko dira.

Bestalde, Deba ibaiari buruzko hitzaldi-sorta antolatu dute urriaren 17rako. Deba ibaia hobeto ezagutu eta ibaiaren ingurumen balioaz gehiago jakin nahi dutenei zuzendutako hitzaldia izango dela aurreratu dute antolatzaileek. Victor Peñas URako Institutuzio-harremanetarako teknikariak eskainiko du sarrera-hitzaldia, eta ondoren, Antton Alberdi eta Inma Mugerza elgoibartarrak arituko dira hizketan Deba ibaiaren inguruan. Elgoibarko Kultur Etxean izango da hitzaldia, 18:30etik aurrera.

Hauteskunde kanpaina



Hauteskunde kanpainaren barruan, Goratu enpresa bisitatu zuten Patxi Lopez PSE-EEko idazkari nagusi eta Eusko Jaurlaritzarako lehendakariak eta Iñaki Arriola PSE-EEren Gipuzkoako zerrendaburuak, astehenean. Goratuko enpresaren egunerokoaren eta epe laburrerako erronken berri eman zieten enpresako ordezkariak PSE-EEko ordezkariak.



EH Bilduk ekitaldia egin zuen barixakuan Elgoibarren, besteak beste Gipuzkoako hautagaien zerrenda aurkezteko. Gipuzkoako EH Bilduren zerrendaburu Xabier Isasik eta koalizioko bozeramaile Pello Urizarrek hartu zuten hitza, atzean zerrendako hainbat lagun zituztela, besteak beste Joseba Osoro eta Iñaki Lazarobaster elgoibartarrak. Bestalde, etzi, hilaren 13an, argazki bat atera nahi du EH Bilduk, eta parte hartzera deitu zituzten herritarrak. 12:30ean izango da Kalegoen plazan. Era berean, egun berean BECen egingo den ekitaldi nazionalerako autobusa antolatu dutela jakinarazi zuten. Txankakoako zubitik irtengo da, 16:30ean. Interesatuak Jai Alai eta Iturri tabernetan eman dezakete izena.

Agenda **Markel Olanoren bisita, zapatuan**

Hauteskunde kanpainaren barruan, Markel Olano Markel Olano Gipuzkoako EAJ-
ren Batzarkide Taldearen bozeramaile etorriko da zapatuan, hilaren 13an, Elgoibarrera. Olanok hitzaldia eskainiko du Batzokian, 18:30etik aurrera, eta ondoren, trikiti-poteoa egingo dute herrian. Gauerako afaria ere antolatu dute, eta interesatuak 675 718 466 telefonoan eman dezakezue izena.

Mugikortasun iraunkorraren astea egingo dute hilaren 15etik 20ra

Bigarren urtez mugikortasun iraunkorraren astea antolatu du Udalak, bizikletaren erabilera eta oinez ibiltzeko joerak sustatzeko. Antolatutako ekintzen artean, Emugi egitasmoko bizikleta eta auto elektrikoak probatzeko aukera emango diete herritarrei eta enpresei. Interesatuak 943 747 371 edo 688 684 633 telefonoetara deitu dezakete, edo emugi@emugi.net helbidera mezu bat idatzi.

Elgoibarren banatuko dituzte Gure Balioak sariak, hilaren 18an

Hilaren 18an, gaur zortzi, banatuko ditu Debegesa Garapen Agentziak Gure Balioak sariak, Elgoibarren. Debabarrenako eskualdean gizarte balioen arloan nabarmendu den pertsona edo entitatearen lana aitortu eta saritzeko sortutako sariaketa da hau, eta aurten, Elgoibarko Udala, Inazio Bereziartua Musika Eskola, DanobatGroup eta Goratu enpresaren laguntza izan du Debegesak ekimen hau antolatzeko. Ekitaldia Inazio Bereziartua Musika Eskolan izango da, 19:00etatik aurrera.

Elgoibarko hamasei odol emaile omenduko dituzte Elgetan

Urriaren 28an egingo dute Debabarrenako eta Debagoienako odol emaileen jaiak, eta Elgoibarko hamasei lagun omenduko dituzte han. 25 aldiz eman dutenak: Isabel Barrutia, Xabier Elustondo, Victor Errasti, Jose Pablo Etxaniz, Amaia Gabiola, Joseba Manzano, Juan Rodriguez eta Urko Sanchez. 40 aldiz eman dutenak: Maria Anjeles Cardaba, Mari Carmen Garcia, Eloisa Irureta, Gemma Roteta, eta Lourdes Atorrasagasti. 50 aldiz eman dutenak: Txomin Arzamendi eta Luis Jauregi. 75 aldiz emandakoak: Jesus Castañares.

IXAKA EGURBIDE

TXANDAKAKO INGENIARITZAKO ZUZENDARIA

Ikasi eta lan, horixe da Txandakako Inge-niaritzaren oinarria. Orain dela hamasei urte sortu zuen IMHk Txandakako Inge-niaritza, eta aurten beste pauso garrantzitsu bat eman dute: Txandakako Inge-niaritza EHUko graduen eskaintzan sartu dute, eta uniber-sitate sistemako lehen txandakako gradua da. Ixaka Egurbide Txandakako Inge-niaritza-zako zuzendariak eman ditu ikasketei bu-ruzko azalpenak.

Ainhoa Andonegi



“Gaur egungo hezkuntza sistema osatzen eta aberasten lagundu dugu”

Zer da Txandakako Inge-niaritza?

Txandakako Inge-niaritza gaitasun batzuk edo lanbide jakin bat garga-zeko bi ikasketa esparru, (enpresa eta ikastetxea), batzen edo uzta-rtzen dituen pedagogia da. Historikoki banatuta eta bata bestearen se-gidan egon diren bi mundu elkarlanean jartzen ditu.

Nola sortu zitzaizuen Txandakako Inge-niaritza martxan jartzeko ideia?

Enpresen behar edo eskari bati erantzuteko sortu genuen. 1995ean IMHk hausnarketa estrategikoa egin zuen, eta hausnarketa horretan kanpo eragile desberdinek hartu zuten parte, tartean enpresek. Lan horretan enpresek esan ziguten beraien beharretara, beraien errealita-tera, egokitutako ingeniariak behar zituztela. Kezka edo eskari honi erantzuteko zer egin genezakeen pentsatzen hasi ginen, eta txandaka-tze ereduarekin egin genuen topo.

Hamasei urte hauetan zer nolako emaitzak eman ditu?

Onak. Historikoki, ikasketak bukatu eta hiru hilabetetara ikasleen %95 lanean zeuden, eta %80 baino gehiagok, ikasketak egindako enpresa berean jarritzen zuten lanean. Azken hiru urteotan datuak aldatu egin dira apur bat, krisiaren eraginez: %80tik %56ra jaitsi da ikasketak egin-

dako enpresa berean jarraitzen duten ikasleen kopurua. Hala ere, lana oso epe motzean aurkitu dutenen portzentajea %91koa da. Oso emai-tza ona da.

Aurten EHUren graduen artean sartu da Txandakako Inge-niaritza. Lan handia izan da hori lortzea?

Nahiko lan eman digu. Alde batetik, EHUra atxikitze prozesua izan du-gu, eta bestetik, ANECA eta Unibasq-en akreditazioak. Bi urte baino gehiago iraun du prozesuak. Bide horretan oso positiboa izan da EHU-rekin lortutako elkarlana. Ateak irekitzeaz gain, asko inplikatzen den lan-talde bat aurkitu dugu, eta hori erabakigarria izan da lortutako azken emaitzan.

Zer suposatu du lorpen horrek IMHrentzat?

Hasiera-hasieratik sinistu izan dugun proiektu eta eredu burubelari lanean jarraitzeko aukera eman digu, eta horretarako oinarriak sendo-tu ditugu. Hori izan da garrantzitsua. Horrez gain, etorkizunera begi-rra bide eta ate berriak zabaltzen zaizkigu EHUrekin elkarlanean aritze-ko. Txandakako Inge-niaritza EHU-n sartzea oso garrantzitsua izan da IMHrentzat, eta oso aberasgarria herriarentzat.

Lehengotik oraingo gradu honetara badago aldaketarik?

Aldaketak badaude, bai. Lehen Frantziako eredu oinarrituta zegoen Txandakako Ingeniaritza, eta hemengora moldatu behar izan dugunez, aldaketak ekarri dizkigu. Agian nabarmenenak hiru urteko ikasketak izatetik lau urtekoak izatera pasatu direla.

Txandakako Ingeniaritza lehen eginda dutenei titulua EHUko gradura egokituko zaie?

Bi bide lantzen ari gara: batetik, orain arteko titulua estatuan homologatu dezaten ari gara lanean. Orain arteko titulua ofiziala da Frantzian, eta Boloniara egokituta dago 2004tik. Bestetik, EHUko titulu berria lortzeko aukera egon dadin horretarako beharrezkoak diren materiak kurtsetzea aztertzen ari gara.

Txandakako Ingeniaritza espreski hemen inguruko beharrei erantzuteko sortu zenuten, eta ondorioz jende asko uste du hemengo enpresetarako prestatzen dituzuela bakarrik ikasleak. Eremu hori gainditzea lortu duzue?

Ikasle asko hurbilekoak dira: Debabarrenekoak gehienak, baina Urolaldetik edo Durangaldetik ere etortzen zaizkigu. Oro har, Euskal Herri osoko ikasleak etortzen zaizkigu: Bilbo, Gasteiz eta Donostia ingurutik etortzen dira batzuk, eta Nafarroakoak ere badauzkagu. Gure ikasleak ingeniariak dira, eta horretarako oinarri zientifiko-teknologiko guztiak dituzte. Beraz, sektore honi lotutako gai guztietan lan egiteko gai dira. Gure bihotza erreminta-makina inguruan dago, baina ikasleak sektore desberdinetako enpresetan ditugu lanean eta ikasten: automozioan, aeronautikan, energia berriztagarrietan...

Hemendik kanpora nola ikusten dute Txandakako Ingeniaritza?

Txandakatze eredu oso hedatuta dago Europan, esaterako, Alemania, Frantzia, Austria, Suiza edota Danimarkan. Unibertsitatean adibide onenak Frantzian eta Alemanian aurkituko ditugu. Bi herrialde horietan txandakatzea erabat zabaldua dago. Italian, Austrian, Suedian edota Britainia Handian ere badaude beste adibide batzuk.

Ikasi eta lan. Zelako pisu dauka eskolak eta zelakoa enpresak?

Gutxi gorabehera ikasketen denboraren erdia eskolan ematen dute ikasleek, eta beste erdia enpresan. Gure kasuan, titulazio berrian, lehen sei hiletan eskolan bakarrik egongo dira ikasleak. Ondoren, ikasketek irauten duten denboran, hiru egun enpresan eta bi eskolan egingo dituzte.

Kanpotik begiratuta, hezkuntza sistemak horrela izan beharko lukeela dirudi. Zergatik ematen zaio ohiko sistemari teoriari garrantzia handiagoa?

Ni ez naiz inor hezkuntza sistemak nolakoa izan behar duen esateko, ez daukat horretarako gaitasunik. Esan dezakedana da, hezkuntza sistemak aberatsa izan behar duela, erantzuten dion munduak oso behar desberdinak dituelako. Zentzu honetan gure eredu honek egiten duen gauza zera da: gaur egungo sistema osatzen eta aberasten lagundu. Gizarteak eta enpresek behar eta profil desberdin asko behar dituzte. Gurea horri eginiko ekarpen txiki bat da.

Krisi garaian gaudela kontuan hartuta, enpresek Txandakako Ingeniaritzako ikasleak prestatzeko aukerarik izango dutela uste duzue?

Bai. Krisi garaian ere ez gara geldirik egon, eta ikasle guztiak izan dituzte enpresak beraien prestakuntza gauzatu ahal izateko. Egia da gero eta gehiago kostatzen dela enpresak aurkitzea, baina beharra bada, eta enpresak oso inplikaturik daude proiektu honetan.

40 ikaslerekin hasi duzue ikasturtea. Nolako sentsazioak dituzue?

Sentsazio onak ditugu, lehen esan dudan bezala hamasei urteotako ibilbideari beste oinarri sendo bat jarri diogulako eta horrek aurrera egitea ahalbidetuko digulako. Aurrera egingo dugu, baina argi izan behar dugu zerk edo zeinek egin duen posible gu gaur hemen egotea: hamasei urtean gudan konfidantza izan duten ikasle eta enpresek. Ikasleek eta enpresek eman diote zentzua eta balioa gure eskaintzari.

Aurrera begirako asmoak?

Lehen pausoa proiektu hau sendotzea eta Unibertsitate Sistemari tokitxo bat egitea da. Baina, ez zaizkigu falta aurrera egiteko ideia eta proiektuak.

Aingeru Gallastegi eta losu Unzueta, Txandakako Ingeniaritzako ikasle ohiak



Txandakako Ingeniaritzako lehen promozioiko ikaslea da Aingeru Gallastegi, eta laugarren promoziokoa losu Unzueta. Biek ere Ingeniaritza tradizionala probatu zuten aurrez, baina ikasi eta aldi berean lan egiteak erakarrita, Txandakako Ingeniaritzan eman zuten izena, eta ez zaie damutu. IMHko Lanbide Heziketako modulo bat egin zuten Txandakako Ingeniaritzan hasi aurretik. Lehen derrigorrez hala zen, baina gaur egun Batxilergoa amaitu eta zuzenean sartzeko aukera dago. Moduloa eginda izatea ingeniaritza ikasketetan lagungarria izan zela nabarmendu dute.

Oroitzapen oso onak gordetzen dituzte biek. Esate baterako, gelan denetari-ko jendearekin topo egin zutela gogoratzen dute, tartean, langile batzuk ere bai. Haien lan ibilbideko esperientziak ezagutzea oso baliagarria izan zela gogoratzen dute. Ikasketak amaitu ostean lanean jarraitu zuten, eta gaur egun ere lanean ari dira. Ulman dago Aingeru, eta Goratun egiten du lan losuk. Aurten, gainera, Txandakako Ingeniaritzako ikasle baten tutorea izango da losu, eta berak jaso zuen tratua bera ematen saiatuko da. Eskolan ikasitakoa enpresan praktikan jartzea oso aberasgarria dela uste dute, eta horrek motibazioan ere eragiten duela nabarmendu dute. Dударik gabe, edonori gomendatzeko kasketak direla uste dute.

Esperientzia Eskola: esperientzien berri jaso eta emateko gunea

Urriaren 16an amaituko da izena emateko epea



Pilar Herrero eta Maite Franco, Esperientzia Eskolako ikasleak.

Pilar Herrero eta Maite Franco iaz ibili ziren Esperientzia Eskolan, eta biek esan dute edonori gomendatzeko esperientzia dela. “Motz geratu zait”, esan du Maite Francok, eta aurten Ikasten fundazioko ikastaroren batean emango du izena. Pilar Herrero lagun baten bitartez animatu da, baina hiru urte behar izan zituen izena emateko. Ez zekien zer izango zen, eta azterketaren bat ere egin beharko zuela uste zuen. Baina etxean egoteaz aspertu zenean, Esperientzia Eskolan izena ematea erabaki zuen, eta erabaki “zoragarria” izan zela aitortu du. Urtebeterako eskolak eskaintzen dituzte, eta Pilarrek ere beste urtebete gustura egingo lukeela adierazi du. Astean hiru egunez joaten ziren Eibarrera eskolara. “Norbaitek pentsa dezake astuna dela, baina guk ez dugu behin ere huts egin”, esan du Maitek.

Filosofia, literatura, elikadura, psikologia, ekonomia... denetarik landu dute, eta irakasle “oso onak” izan dituzte. Landutako gaien artean, sexologia ere izan dute, eta gai “korapilotsua” izan daitekeena oso modu egokian landu zutelako kontatu dute bi emakumeek. “Tertulia eroso eta interesgarria izan genuen, eta gure adinekoren artean horrelako gaiak lantzea ohikoa ez den arren, oso gustura jardun genuen guztiok”.

Eskola baino gehiago, esperientziak trukatzeko gunea da Esperientzia Eskola. Metodologia “oso atsegina” da, eta jendea ezagutzeko ere balio du: “Harreman polita egin dugu elkarren artean”.

Ez dago azterketarik, eta ohiko eskoletan ez bezala, Esperientzia Eskolan ikasleek jartzen diete nota irakasleei. Behin eta berriz nabarmendu dute Pilarrek eta Maitek ez dela inolako ikasketarik behar Esperientzia Eskolan parte hartzeko, eta 50 urtetik gorako guztiak animatu nahi dituzte esperientzia hori probatzera: “Ez dira damutuko”.

EVA PEREZ DE ALBENIZ,
Esperientzia eskolako arduraduna



Zer da Esperientzia Eskola?

50 urtetik gorakoentzako eskola da, eta bereziki, lan ibilbidea amaitu dutenei zuzenduta dago. Dena dela, azken urteotan etorri izan dira langabezia daudenak ere. Gehienak 60 urteren bueltakoak izaten dira, baina 70 urtetik gorakoak ere etorri izan dira. Aurtengoa bederatzigarren promozioa izango da.

Zein da Esperientzia Eskolaren helburua?

Bi helburu nagusi ditugu: batetik, mundua hobeto ezagutzea. Gai asko eskaintzen ditugu, baina ez dugu gehiegi sakontzen. Zertzelada nagusiak ematen ditugu eta gero norberak izango du bere aldetik sakontzeko aukera. Bestetik, gure ikasleek badute bizitzan esperientzia, eta esperientzia horiek konpartitzea da garrantzitsuena. Esperientzia oso baliagarriak dira eta horiek jasotzen saiatzen gara. Hortaz, klaseak emateaz gain, proiektuak ere lantzen ditugu. Lehenengo promozioiko ikasleek, esate baterako, Ikasten elkarte sortu zuten, eta ikastaro asko antolatzen dituzte. Azken batean jaso eta eman egiten dugu Esperientzia Eskolan.

Nolako harrera dauka?

Jendea oso pozik etortzen da. Eskola hitzak jende askori beldurra ematen dio, baina argi laganahi dugu denentzako modukoa dela.

Non eman behar da izena?

Ikasturtea urriaren 16an hasten da, eta ordura arte egongo da epea zabalik. Herritarren Arreta Bulegoan egin daiteke matrikula. 200 euro ordaindu behar dira, baina Kutzak ematen duen laguntza bati esker, ia erdia itzultzen da kurtsoa amaitzean.

Erretratu zaharra



1975

Aste honetako erretratu zaharra Ane San Martinek ekarri du BARRENERA. 1972an jaiotakoak dira ume horiek, eta erretratu honetan hiruzpalau urte izango zituzten. Garai hartan Loritoneko lokaletara joaten ziren eskolara, eta hango gela batean ateratako argazkia da. Ikus ditzagun zeintzuk diren erretratuan ageri direnak:

Goiko ilaran: Andereño Maite, Jon Iglesias, Raket Arriola, Igor Sota, Itziar Lasuen, Aitor Gonzalez, Nerea Machado, Ibon Bastida. **Erdian:** Joseba Igartua, Eduardo Blanco, Itziar Ibabe, Zigor Esnaola, Iratxe Arrizabalaga (†), Asier Errasti, Itziar Albarran, Amaia Langarika, Igor Froilan, Miren Moreno, Nora Lodoso, Natalia Garmendia. **Behean:** Ismael Escalante, Gorka Fernandez, Kristina Alvarez, Igor Agirregomezkorta, Ane San Martin, Iñigo Villaba, Andoni Lopez de Sabando, Idoia Gastesi, Olatz Astigarraga, Dunia Cid, Nerea Urbieta, Julen Elustondo.



ESKERTZA

**ELISA RUIZ DE GAUNA
IBAÑEZ DE GARAYO**

2012ko urriaren 8an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




asiskourmeneta

Komikilaria eta 'Gartxot' filmaren zuzendaria

Nafarroa arragoa egitasmoaren barruan, *Gartxot* filma ikusteko eta Asisko Urmenetaren azalpenak entzuteko aukera izango da Elgoibarren gaur zortzi, hilaren 18an. Arturo Campionek idatzitako kondaira da *Gartxot*, euskararen aldeko aldarrikapena. Istorioan murgildu ahala, baina, gauza gehiago ere kontatzen direla ohartuko da ikuslea: hor dago Donejakue Bidea, hor bardoak, hor Kar-lomagnoaren jarraitzaile inperiozaleak... Osagai asko, hari finez josita.

Bere argazki bat eskatuta, karikatura hau bidali du Asisko Urmenetak. Komikilariaren beraren 'autoerreturatu'.



“Arrotzak beti tematu diragu zatitzen”

Arturo Campionek duela ehun urte idatzitako XII. mendeko istorioa da marrazkitan jaso duzuen, Campionek berak Zaraitzun jasotako kondaira. Zelan moldatu zarete garai haiek irudikatzen?

XII. mendeko atmosfera horretan sartzeko, dokumentazio idatzira eta grafikora jo genuen. Deus gutxi da XII. mendeari buruz dagoe-na. Idatzirik bada zerbaixka, baina ezin jakin nolakoak ziren etxeak, jantziak... Baina marrazki bizidunak egitea hori da egiazki: mundua idaztea, zerotik hasita. Dena sortua da. Beharbada gero etorriko da paleoarkeologo bat edo arkitekto bat eta erranen du ez dela zuzena guk eginikoa, baina guk inpresioa eman nahi izan dugu XII. mendean ginela. Hizkera ere baliotu dugu horretarako. Ez dugu berreraiki nahi izan XII. mendeko euskara, ez baitago gure esku, baina bai eman nahi izan diogu ekialdeko ukitu arkaiko bat.

Nafarroako konkistaren kontrako ikurra da *Gartxot*, baina konkistaz gain, beste gai batzuk ere aipatzen dituzue filmean. Esango nuke bardoak zer ziren ezagutzeko ere balioko diela askori.

Bai, bai, hori nahi izan dugu. Ni komikiaren mundutik iritsi naiz, eta komikigintzan bada ezinbesteko erreferentzia bat: *Asterix*. Asterixek duena da haurrak garelarik ikaragarri gustatzen zaigula, baina gero hartzen

dugula handiagotan eta deskubritzen dugula badirela beste plano batzuk, beste kritika batzuk. Gosciny [René] ikaragarri ona zen gidoigintzan. Gartxotekin, konparatu nahi izan gabe Gosciny jenoarekin, hori egin nahi izan dugu. Batetik, bada istorio lineal bat, Campionena, baina, bestetik, istorio horrek baditu adaxkak, erroak, hostoak... Bardoen aipatu duzu. Bardoak ziren garai hartako zibilizazioaren disko gogorra. Ingalaterrak Gales bereganatu zuenean, adibidez, bardo guztiak garbitzea izan zen egin zuen lehendabiziko gauza. Hori da espainolek egin nahi izan dutena duela 500 urteko konkistaz geroztik. Konkista bat egoten denean lehendabiziko gauzetako bat iragana ezabatzea izaten da beti, eta guk testuinguru hartan bardoek zer garrantzi izan zuten kontatu dugu. Egiazki, Campionen duda batetik abiatu zen narrazioa.

Zer esan nahi duzu?

Campionek erraten zuen euskalduna herri kantaria zela eta euskaldunok ez genuela hainbeste garaipen militarrik izan historian barrena. Kontrakoa. Orduan ez zuen ulertzen nola Orreagakoa bezalako garaipenak, sekulako oihartzuna izan zuenak Europa osoan eta gure erresumen egituraketa ahalbidetu zuenak, ez zuen oihartzunik izan gure kantagintzan. Eta hortik abiatuta, egiazki bardoek eta gure zibilizazioa-

ren kontrako jazarpen bat egon zela kontatu nahi izan zuen, eta Gartxot geroztik, galdu dela hari bat, iraganarekiko lotura bat.

XII. mendeko historia da, baina esango nuke baduela gaurkotasunik.

Bai, bai. Zer gara euskaldunok oraindik ere? Jende askorentzat, anomalia bat. Hemen gara bidegurutze ikaragarri handi batean, bi inperio handiren artean, eta bi inperio horiek batzuetan izan dira elkarren etsai, eta beraien xake partida horretan, zatikatu gaituzte. Orain oso lagunak dira, eta ez dakit panorama hobea den. Arrotzak beti tematu izan dira gu zatitzen, eta guretzako bizkarrezurra izan direna, Pirinioak, beraieneztat muga izan dira, horrek dakarren distortzio guztiarekin. Erromatarren garaitik heldu da oraingo zatiketa, eta azken 2.000 urtean horretan ibili dira. Eta gu hemen, beti egoskor eta beti bat. Kanpokoek beti tratatu gaituzte anomaliatzat. Asimilatu nahi izan gaituzte, baina gaur da eguna gu saiatzen garela hori distortsionatzen eta paperetan horren txukun dutena aldrebesten. Hemen gaude, zanpatzen gaituzte oraindik ere, eta beraz, ez gara libre, baina zanpatzen gaituzten horiek ere ez daude bakean, ez daude eroso. Seguru asko xahutu beharko dute disolbatzaile gastriko gehiago, gu liseritu ahal izateko, eta sufrituko dituzte ultzerak eta denetarik, baina, hala ere, ez digute alde egiten uzten eta ezta mintzaten ere.

Erresistentziaren irudia da Gartxot. Hizkuntzarekiko atxikimendua, jazarpenaren kontrako borroka... Karga handiko filma da zuena, eta musikak aparteko indarra daukala esango nuke.

Komikia egin genuen guk lehendabizi, eta egin genuen lehendabiziko gauza Benitorekin [Lertxundi] harremanetan jartzea izan zen, bera izan delako Campionen garaitik gure garaira arteko lotura. Benitori esker ezagutu zuen jende askok Campionen Itzaltzuko bardoaren legenda, eta horregatik oinarrizko katebegia izan da kate luze horretan. Deitu genion, eta berak ikaragarri ondo hartu gintuen, beti bezala. Gizon libre da, eta ezinbestekoa pentsatzeko maneran. Horregatik guri ezinbestekoa egiten zitzaigun Benitoren parte-hartzea.

Gartxoten rola betetzea ere proposatu zenioten Benito Lertxundiri.

Bai, baina ezetza eman zigun, eta eman zizkigun arrazoiak oso arrazoizkoak iruditu zitzaizkigun. Batetik, erran zigun protagonismo sobera hartuko zuela, eta bestetik, erran zigun kezka zuela bere formakuntzagatik sobera domestikatuko ote zuen Gartxoten pertsonaia. Gartxotek behar zuen izan XII. mendeko bertsolari eskola gabea eta zirikatzailea. Ni konbentzitua nago Benitok egiten ahal zuela izugarri ongi, baina erran zigun ezetz, eta proposatu zigun Mixel Etxekoparregana joatea. Mixel Gotaine-Irabarneko (Zuberoka) musikaria da, musika basoan txoriei entzunez ikasi duena, eta zernahi egin dezakeena. Mixelek badu, gainera, bertso zaltetan handia eta badu zirikatzaile izpiritu hori ere. Eta halaxe, azkenean berak bete du Gartxoten papera. Hala ere, Benitoren parte-hartzea eta baita Olatz Zugastirena ere oso handia izan da. Beraien diskografiatik tiratzeko baimena eman ziguten lehendabiziko unetik, eta oso inplikatuak izan dira biak. Ezinbestekoak. Ikusle erneak, gainera, ezagutuko ditu haien ahotsak filmean zehar.

Bitxia da, hala ere, halako tragedia bat irudikatzen karikatutziora jo izana. Sudur handi horiek-eta...

Marrazki bizidunen film batean, dena da asmatu beharra, eta dena egitekoa denez, zergatik egin gauza hipererrealista bat, anatomikoki perfektua dena? Gainera, nik ez dakit hipererrealismoa egiten; beraz, ez zen horretarako arriskurik. Apustua izan zen. Komikia egin genuen lehendabizi, eta Benitok berak erran zigun arriskua ikusten zuela sudur luzeekin istorioa banalizatzeko. Gero laburmetraia egin genuen eta txertatu genituen pertsonaia horiek paisaia, eta filma ikusi ondoren, hunkitu egin zen. Egindako lana mirestekoa zela erran zigun. Alde horretatik, nik, pertsonaia horien egilea naizelarik, erran behar dut talde handi bat ibili dela hor osagai horiek guztiak bildu eta istorioa sinesgarria egiten.

“Zibilizazio hartako disko gogorra ziren bardoak”



Filmeko lehenengo minutuek arreata osoa eskatzen dute. Hor ere apustu handia egin duzue.

Orokorrean hori erran du jendeak; hasieran kosta egin zaiela istorioan sartzea. Egia da hasieran oso deskriptiboa dela filma eta jakin egin behar dela non kokatzen den, eta latina eta okzitaniera nahasteak ere zaila egiten du, baina gero jendea nonbait ahaztu egiten zaio marrazkiak ikusten ari dela ere, eta bukaeraraino eramaten du dramak; batzuetan hunkitzeraino.

Animaziozko filma, baina helduentzat. Karikaturizazioa, tragedia bat irudikatzeak, eta gainera, euskaraz, baina ez batuaz. Ekoizpen-etxeak berak ere ez du apustu makala egin zuekin.

Ez. Beste edozein ekoizpen-etxeak aspaldi zidaten ostikoa eman, film hau antikomertziala delako edozein ikuspuntutatik begiraturata. Sekulako poza izan da.

Marrakzi bizidunak eta euskaraz. Saillapen errazetara jota, haurrentzakoa dela pentsa dezake batek, baina ezta urrik eman ere. Zeinentzat egin duzue? Nola hartzen dituzu halako saillapenak?

Bai, erori gara horretan ere. ETBrekin gertatu da. ETB haurrentzako katea da; ez da seriozki euskaldunentzako kate bat eraiki. Infantilizazioan erori gara, baina hori da herri honetarako planifikatu den hizkuntza-politikaren isla. Batzuek erranen dute 'bai, guk ez dugu euskaraz ikasi, baina gure haurrak eramanen ditugu ikastolara', eta horrekin irudi du ordaindu dutela peajea. Hizkuntzaren infantilizazioa fenomeno bat da. Eta marrazki bizidunena zer? Ni komikiaren mundutik nator, eta nire aldarrikapena beti izan da erratea 'pasatu Baionara, eta ikusi komikiaren saila'. Han ikusiko dituzu komiki erotikoak, belikoak, intimistak... Hemen Hegoaldean, ez. Hemen, Hegoaldean, espainolen eraginez zabaldu dena da komikia dela haurrentzat, eta, gainera, gripeak jota daudenerako. Nolanahi ere, guk erraten dugu Gartzot dela 11 urtez gorakoentzako.

Hoztan bizi zara oker ez banago (Nafarroa Beherea). Ez zinen ba horregatik joango Iparraldera, ezta?

Kar-kar-kar. Egia erran ez, ez naiz errefuxiatu komikiaren munduan sartzeko, baina egiazki plazer bat da hemengo.

Euskara da filmaren gai zentrala. Sarri egin duzu euskararen alde,

eta bereziki euskara "informala" sustatzearen alde. Arriskuan ikusten duzu hizkuntzaren beraren freskotasuna?

Bai. Gure adierazpideetan ditugun hutsak aztertzearen aldekoa naiz. Nik uste dut sortu beharko genuela talde eragile bat eta hor sartu Antton Olariaga bat, Anton Lupu, Mattin Irigoien, Itxaro Borda eta horien antzera sortzaile eta hizkuntza-jostalari den jendea, eta sortu adierazpideak, eta zabaldu. Filma egitean, nik argi neukan jendea XII. mendeko Pirinio aldera eraman nahi bagenuen, ez zela agertzen ahal Gartzot, eta erran: 'Egongo gara'. Akademizismo horretatik urrundu behar ginen, batetik, eta, bestetik, lokalizazio geografikotik eman behar genuen aditzera, betiere zailtasun sobera eman gabe, ekialdeko haizea zekarrela istorioak.

Azken urte hauetan asko zabaldu da goi esparruko hizkuntza akademizista, funtzionarizatua eta monokromoa, eta nik beharra ikusten dut beste hizkuntza normalduetan duten antzeko beste esparru hori indartzea. Euskaraz, lortu dugu batuaz goi mailako euskara bat, eta gero beheko esparruetan, kasurik hoberenetan euskalkietara jotzen dugu, betiere euskalkia bizirik dagoen lekuetan, eta kasurik okerrenetan, erdaretara. Eta guk bi erdara ditugunez, horrek zailtasunak ekartzen ditu gazteen artean elkar konprenitzeko.

Ez zara akademia zalea.

Nik ez dut errango akademizismo hori lastre bat denik, ez dudalako ezer egin goi esparru horietan, baina batzuetan bai dela traba normal bizitzeko. Euskaldun zaharrak ez du euskaraz hitz egin nahi publikoki, uste duelako ez dakiela euskaldun berriak bezain ongi; euskaldun berriak, berriz, ez du hitz egin nahi lotsa delako. Iruditzen zait erraztasun gehiago eman behar dela. Erdaraz ari garelarik, inor ez da etortzen 'hau gaizki erran duzu' erranez. Eta euskaraz ari zarelarik, goizeko lauretan ere agerturen zaizu norbait erranez 'hori ez da horrela esaten'. Aurrera egin behar da, jostagarri egin behar dugu euskara, eta ez tematu horrenbeste ararekin-eta.

Hilaren 18an, Nafarroa arragoa egitasmoaren barruan, Gartzot filma ikusteko aukera izango dugu Elgoibarren. Ondoren, hitzaldia emango duzu. Saldu ezazu zuk zeuk saio hori.

Ez naiz ona marketinean, baina beti pentsatzen dut gustuz egingadako lanak beti transmititzen duela zerbait. Niri klasikoak asko gustatzen zaizkit, liburu gehienak eginak baitira Euskaltzaindia eta beste akademiak sortu aurretik, eta horrek libertate bat ematen dielako idazleei zernahi libreki esateko. Joan Tartas zuberotarra da klasiko bat, eta Tartasek dio jendeak egiten dituen obrak oro direla hiru suerteko: edo hilak, edo biziak, edo mortifikantiak. Niri lan funtzionarioak egiten zaizkit oso mortifikantiak, gozatu gabe egiten direlako, eta guk egin duguna erranen nuke bizi dela, asko gozatu baitugu.

“Jostagarri egin behar dugu euskara, eta ez tematu horrenbeste ararekin-eta”



Juanjo Elordi eta Asisko Urmeneta 'Gartzot' filmaren zuzendariak, kartelarekin.



Botiloia ren ondorioak jasan dituzte IMHn: "Aski da! 1991n IMH zabaldu zenean, barrutia ireki eta uztea erabaki zen, herritarrok hango lorategiez eta jolastokiez gozatu ahal izateko. Eta urte guzti haue-tan, aisialdiaz gozatzeko gune bihurtu da elgoibartarrontza-ko. Zoritxarrez, azken urteetan bandalismoa jasaten ari ga- ra etengabe, eta astero botiloia ren ondorioak, suteak, zikin-keria, animalien gorotzak, etabar luzea jasaten ditugu, eta zer esanik ez asteburuetan! Zikindutako ingurua garbitzen eta konpontzen lan ordu dexente igarotzen ditugu asteko lehen egunetan. Hala, IMHko ingurua errespetuz erabiltze-ko eskatzen dizuegu herritarroi, eta han zaudetela bizikide- tza zapuzten duten zerba it ikusten baduzue berehala sala- tzeko".



Bernardo Ezenarro kalean zamalanetarako gu- nea kendu dute: "Aparkatzeko arazo handiak izaten ditugu herriko erdigunetan, eta eskerrak eman behar dizkiogu Udalari, Bernardo Ezena- rro kalean zamalanetarako egokitu zituen aparkalekuak guztiontzako erabilgarri jarri dituelako. Eskerrik asko".



Eskerrik asko Errosario kaleko Ama Birji- naren azpian dagoen zakarrontzia kendu dutelako: "Oso zata- rra zegoen Errosario kaleko Ama Birjina dagoen horma zati hori. Oso dotore jarri zuten Ama Birjina jaie- tarako, baina zaka- rrontziak dena zatar- tzen zuen. Norbait konturatu dela dirudi, beraz, kendu duenari txalo bero bat".



Txankakuak eskerrak eman nahi ditu: "Dendak Bizirik eta Stock feria antolatu dugunon helburua herrian giro ona sortu, herriko komertzioaren garrantziaz ohartarazi eta gure aurreneko stock feria egitea zen, eta pozik gaude egindakoaz. Uste dugu modu batera edo bestera elgoi- bartar askorengana iritsi garela, eta hori dela-eta, eske- rrak eman nahi dizkiegu Dendak Bizirik eta Stock feria programaren barruko ekintzak antolatzen lagundu digu- ten guztiei: Ion Zubiaurre, Inazio Bereziartua Musika Es- kola, Biraka Dantza (Iosu Mujika), Zuhaitz Gurrutxaga, El- goibarko Udala, Ostalarien Elkarte eta Txankakua elkar- teko dendariei. Komertzioak bizia ematen du".



IVAN MORALES

Gazte ekintzailea

Lanik gabe geratu zen Ivan Morales urtarrilean, eta aspalditik buruan zeukan proiektu bat martxan jartzeko unea izan zitekeela bururatu zitzaion. Pentsatu eta egin. *Euskadiexperiencebox.com* webgunea jarri du martxan, Euskal Herriko kultur eta aisialdi eskaintzak prezio merkeagoan saltzeko ataria.

“Ekintzaile izatea da langabeziatik irteteko bidea”

Zer da *euskadiexperiencebox.com*?

Euskal Herriko turismo, gastronomia eta aisialdi eskaintzak egingo dituen atari digitala da. Hau da, hornitzaile bakoitzak bere eskaintza egingo du, eta erabiltzaileek prezio merkeagoan erosteko aukera izango dute. Hornitzaileek ez dute ezer ordaindu behar webgunean agertzeagatik, zerbitzu hori doakoa da. Webgunearen bidez saltzen duten produktu bakoitzaren %13 niri ordaindu behar didate, baina beraiek ez dute ezer galtzen, eta erabiltzaileentzako oso aukera ona da.

Nola bururatu zitzaizun proiektu hau martxan jartzea?

Elgoibarko hainbat enpresatan ibili izan naiz lanean, eta segurtasun agente edota zerbitzari lanetan ere ibilitakoa naiz, baina urtarrilean lanik gabe geratu nintzen, eta nire kabuz lanean hasteko une egokia izan zitekeela pentsatu nuen. Beti nahi izan dut neure buruaren nagusi izatea, eta negozio propioa martxan jartzeko ilusioa nuen. Ideia hau aspalditik neukan buruan, eta orain dela hilabete inguru jarri dut martxan. Argi neukan Interneten egin nahi nuela zerbaite. Internet da etorkizuna, eta aukera eta erraztasun handiak ematen ditu. Gainera inbertsio txikiagoa eskatzen du, eta gauzak ondo irten-go ez balira, ez nuke askorik galduko.

Eta nolako erantzuna izan du zure proiektuak?

Poliki bada ere, aurrera doa. Webgunea prestatzeko diru-laguntzak izan ditut, eta laster euskarazko bertsioa ere jarriko dugu martxan. Mantenu ikasketak egin ditut, eta honekin ez dauka zerikusirik. Autodidakta naiz guzti honetan, eta poliki-poliki ari naiz ikasten. Lanik zailena hornitzaileak aurkitzea da. Momentuz eskaintza gutxi dauz-



kat, baina askok erakutsi dute interesa eta gehiago animatzea espero dut. Komertzial lanetan ere ni neu nabil, eta ez da lan erraza. Eta bezeroentzat ere ez da garai ona. Sare sozialen bidez jarraitzaile asko ditu webguneak, baina produktuak erostera ez dira asko animatu. Garai zaila da.

Krisi garaian jarri duzu martxan webgunea. Erabaki arriskutsua ala ausarta da?

Apur bat arriskutsua izan daiteke, baina ausarta izan behar da. Ilusio handia daukat, eta denek esan didate oso ideia ona izan dudala. Estilo honetako beste webgune batzuk ere badaude, baina zerbaite desberdina eskaini nahi dut. Gastronomia eskaintzeaz gain, pilota partidarako sarrerak eskaintzen ere saiatuko naiz. Mota desberdinetako publikoarengara iritsi nahi dut.

Gazte ekintzailetzat duzu zure burua?

Bai, eta hori da bidea. Langabezia dauden gazte guztiei egiten diet gomendioa. Egoera oso zaila da, eta ikasketak izan arren, gazte asko daude langabezia. Ez da erraza, baina ekintzaile izatea da langabeziatik irteteko bidea. Artaldeari jarraitu eta lanpostu baten zain egoteak ez du balio. Gaur egungo egoeran ekintzaile izan behar da. Ideia on bat aurkitu eta proiektua garatu egin behar da. Robert Kiyosakiren *Padre rico, padre pobre* liburua irakurri dut, eta horrek zabaldu dizkit begiak. Beti erakutsi izan digute beste batentzat egin behar dugula lan, baina ahal bada, norberarentzat lan egitea askoz hobea da. Horrek ere baditu desabantailak, baina abantailak gehiago direla uste dut. Jausten ikasten da aurrera egiten.

Ekintzaz beteriko jaiak ospatu dituzte Errosario kalean

Ezpata dantzarekin amaitu ziren domekan Errosario kaleko jaiak. Jende asko batu zen Meza Nagusiaren ostean, Haritz Dantza taldearen ezpata dantza ikusteko, eta, tartean, Juan Antonio Urbeltz dantzaren sortzailea bera ere bai. Baina ez da hori izan ekitaldi bakarra, aurreko egitarau oparoa prestatu dute-eta. Orrialde honetan bildu ditugu aurtengo jaietako argazki batzuk. Erretratu gehiago, www.elgoibarren.net webgunean. Bestalde, hauek dira Errosario kaleko merkataria eta ostalariek eginiko zozketako zenbaki irabazlea 1817 izan da, (ordezkoa, 0859). Irabazleak azaroaren 9ra arteko epea dauka saria jasotzeko.



Ruiz, Conde eta Perez izan ziren onenak igel toka jaurtiketean.



Mauxitxa txarangak giro bikaina jari zuen barixaku atsaldean.



Udal agintariei egin zieten dantza parroikia atarian.



25-23 irabazi zuten Mikel Goñik eta Arrastoak, Txafe eta Eskuderoren kontra.



2009an berreskuratu zuten Errosario kaleko Ama Birjinaren ezpata dantza.



Lore eskaintza egin zioten Ama Birjinari, jaiak hasteko.



San Lazaro egoitzakoak, txokolate janean.

Zaporeen feria zabalduko dute bihar Lekuederren

Hamasei herrialdetako produktuak ekarriko dituzte

Zaporeen azoka jarriko dute bihar Lekuederren, eta domekara bitartean hamasei herrialdetako produktuak dastatzeko aukera egongo da. Tartean, Galiziako produktuen postu berezi bat egongo da, eta 00:00ak arte olagarroa dastatzeko aukera izango da han. Bihar inauguratuko dute azoka, 12:00etan, eta antolatzaileek aurreratu dute joaten direnek muskuluak doan dastatzeko aukera izango dutela.



Imserso programan izena emateko epea urriaren 16an amaituko da

Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak jakinarazi duenez, Imser-soko Oporren Programan izena emateko epea urriaren 16an amaituko da. Interesatuak Udaleko Ongizate Sailean edo Jubilatuen Egoitzan jaso ditzakete eskaera orriak. Informazio gehiagorako udaletxeko arreta bulego-ra deitu daiteke: 932 741 050.

Margo erakusketa, hilaren 20ra arte

Joan zen barixakuan inauguratu zuen Emilia Nogales margolari elgoibartarrak margo erakusketa, eta hilaren 20ra arte egongo da zabalik. Guztira, 30 bat koadro jarri ditu Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Bere estiloari eutsi dio Nogalesek, baina material eta kolore berriak erabili ditu. Astelehenetik zapatara egongo da zabalik erakusketa, 18:30etik 20:30era.

2013ko egutegirako argazki lehiaketa urriaren 19an amaituko da

Udaleko Euskara Sailak antolatuta, martxan da 2013ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa, eta urriaren 19a izango da erretratuak aurkezteko azken eguna. Aurtengo gaia Elgoibarko gizarte bizitza izango da, eta besteak beste, jaiak, tradizioa, ohiturak, kultura edota lanbideak irudikatzen dituzten argazkiak hartuko dira kontuan. Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek hartu dezakete parte lehiaketan. Hamabi argazki sarituko dituzte, eta bakoitzak 65 euro jasoko ditu. Erretratuak CD batean entregatu daitezke Euskara Sailean bertan edo e-postaz bidali daiteke euskara@elgoibar.org helbide elektronikora. Informazio gehiagorako 943 744 366 telefonora deitu daiteke.

Dolmenen ibilbidea eta Burdinolen ibilbidea antolatu ditu Debegesak astebururako

Dolmenen ibilbidea antolatu du Debegesak biharko, *Arbasoen Deia* egitasmoaren barruan. 10:00etan jarri dute hitzordua Karakateko aparkalekuan, eta handik abiatuta, Hirukurutzetara arteko dolmen eta trikuharriak bisitatuko dituzte. 7 urtetik gorako edonork hartu dezake parte. Domekan, bestalde, Burdinolen ibilbidea egingo dute. Mendaroko tren geltokian batuko dira 10:00etan, eta handik Kilimoi bailarara joango dira, ibilbide txiki bat egiteko. Amaitzeko, IMHko Erreminta Makinaren Museoa bisitatuko dute. Bi telefono zenbaki eman dituzte izena eman nahi dutenentzako: 943 191 172 / 695 783 656.

Perurenaren etxera irteera eta kantu afaria antolatu dituzte 'Nafarroa arragoa'-ren barruan



Nafarroa arragoa egitasmoaren barruan Peru Harrira irteera eta bertso-kantu afaria antolatu dituzte, urriaren 20rako. Eguerdiko 12:00etan irtengo dira Elgoibartik Leitza, Iñaki Perurenaren etxea bisitatuz. 15:00ak aldera egingo dute bazkaria Perurenaren etxean bertan (norberak bere bazkaria era-

man beharko du), eta arratsaldean Leitza herria ezagutuko dute. 19:00etan hartuko dute autobusa Elgoibarrera itzultzeko, eta 21:00etan bertso-kantu afaria egingo dute Gaztetxean, Uxue Alberdi eta Ander Lizarralde bertsolariekin.

Parte hartzeko hiru aukera daude: Peru Harrira irteerak 15 euro balio ditu; bertso-kantu afariak 20 euro, eta egun osoko irteerak 30 euro. Interesatuak Elgoibarko Izarran (943 741626) eman behar dute izena, urriaren 15a baino lehen.

Nafarroa arragoa herriko hainbat eragile-
ren ekimenez osatutako egitasmoa da: Elgoibarko Izarra, Udala, Morkaiko, Ongarri eta Gazte Asanblada.

Kilometro bertikalen zirkuitua irabazi du Iñigo Larizek

“Ahaleginaren saria” izan dela adierazi du Larizek

Euskal Herriko Igoera Bertikalen zirkuituko txapela lortzea urte osoan egindako “ahaleginaren saria” izan dela adierazi du Iñigo Larizek. Lau probak osatzen dute lasterketa bertikalen zirkuitua, eta horietan lortutako hiru emaitzarik onenak hartzen dira kontuan azken sailkapena osatzeko. Lehen bi probetan, Azpeitiko Zuzenien eta Txindokiko Kilometro Bertikalean, bigarren egin zuen Larizek; Uharte Arakil-Beriangoko Kilometro Bertikalean laugarren, eta Anbotoko proban bosgarren. Horixe izan da zirkuitoko azkena, eta lasterketa “txarra” irten zitzaioela aitortu du elgoibartarrak. Hrenbestez, lehen hiru probetan batutako 248 puntuei esker irabazi du txapela Larizek. 300 euro, txapela eta garaikurrak jaso zituen saritzat.

Mendi lasterketetan diharduten izen handiko korrikalariekin lehia ibili da elgoibartarra denboraldian zehar, eta, esan duenez, gutxiak osatu dituzte lau probak. Urte guztian erakutsi duen erregulartasunari eman dio balioa.



Bihar jokatu dute San Pedroko txirrindulari Igoera

Bihar, urriak 12, jokatu dute San Pedroko Igoera, Julian San Juanen omenez, Lagun Taldeak antolatuta. Azken bi edizioetan Iñigo Lazkano mendaroarrak irabazi du gizonetako, eta emakumeetako Ainhoa Lendinez elgoibartarrak jantzi zuen txapela iaz. 12:00etan irtingo dira txirrindulariak Kalegoen plazatik.

Nordic walking ikastaroa antolatu du Elgoibarko Kirol Patronatuak

Kirol Patronatuak nordic walking ikastaroa eskainiko du urriaren 21etik aurrera. Bastoekin oinez ibiltzea da oinarrian nordic walking kirol modalitatea. Finlandian du jatorria. Eskiatzaileentzako entrenamendu egokia da, baina edonork praktikatu dezake. Interesatuek Olaizaga kiroldegian eman beharko dute izena, hilaren 17a baino lehen. Astean hiru orduko saioa eskainiko dute, eta ikastaroaren prezioa 25 eurokoa da.

Gimnasio berria prest, Olaizaga kiroldegian



Kirol Patronatuak lokal berria egokitu du kiroldegian, kirola egiteko. Orain dela gutxira arte Taupada antzerki taldeak erabiltzen zuen lokal hori, baina aurrerantzean Hip Hop eskolak emango dituzte han, eta, era berean, behar bereziak dituzten haurrentzako Anateusk programa ere bertan garatzen da. Lurzoru berria, ispiluak eta musika aparatua jarri dituzte gela berrian.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 2 – Portugalete 0 (3. maila)
Eibartarrak 3 – Elgoibar 1 (1. erreg.)
Lazkao 3 – Elgoibar 1 (Neskak)
Ilintxa 3 – Elgoibar 4 (Jub.)
Real sociedad 4 – Elgoibar 0 (Kad. A)
Elgoibar 5 – Mutriku 1 (Kad. B)
Elgoibar 2 – Aloña Mendi 2 (Oherezko inf.)
Elgoibar 13 – Sanse 2 (Inf. Txiki)

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Usurbil 15 – Lagunak 22 (2. mailako nag.)
Lagunak 3 – Oiarpe 22 (2. mailako nag.)
Lagunak 18 – Gazteleku 22 (2. mailako kad.)
Lagunak 7 – Eple 22 (2. mailako kad.)
Lagunak 17 – Lapke 22 (2. mailako kad.)
Pala
Lagunak 15 – Batzokiko 25 (1. mailako nag.)
Lagunak 25 – Batzokiko 7 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 3 – Colo Colo 1 (1. maila)

ESKUBALOIA

Zarautz 21 – Tecnifuelle Elg. 31 (Sen. neska)
Pulpo 20 – Alcorta Elg. 27 (Sen. mut.)
Egia 23 – Sanlo 27 (Sen. mut.)
Lauko 21 – Kukullaga 31 (Kad. neska)
Elbar 21 – Beristain Elg. 33 (Jub. mut.)
Astigarraga Elg. 26 – Kukullaga 31 (Kad. neska)
Zarautz 7 – Ikus 26 (Kad. neska)
Amenabar 24 – Txarriduna Elg. 30 (Kad. mut.)
Urola 29 – Sanlo 15 (Kad. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Barbakua, 12
10:00 Elgoibar – Aurrera (Kad. A)
12:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Jub.)
16:30 Elgoibar – Allerru (Neskak)
Zapatua, 13
16:30 Elgoibar – Mutriku (Erreg.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 13
16:00 Ikus Elg. – Pulpo (Kad. neska)
17:30 Sanlo Elg. – Saieko (Sen. mut.)
19:30 Alcorta Elg. – Beti Onak (Sen. mut.)
Domeka, 14
11:30 Beristain Elg. – Usurbil (Jub. mut.)

LANA

ESKAERA

- LH eta DBHko klaseak ematen ditut. Ikasgai guztiak.
☎ 696 295 095
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Adinekoak zaintzen esperientzia dauka.
☎ 650 152 866
- Gizonezkoa lanerako prest. Biltegian, garraiolari, baserrian...
☎ 649 659 041 (Diego)
- Neska gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. Esperientziaduna.
☎ 661 642 764
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest.
☎ 699 232 823
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest.
☎ 636 247 429
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest.
☎ 664 009 684

- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Baserriko lanak ere egiteko prest. ☎ 631 155 950

ETXEBIZITZAK

- Etxea alokairuan, Errosario kalean. Hiru logela, egongela eta berogailu zentrala.
☎ 639 353 331 / 943 742 034
- Etxea alokairuan Elgoibarren. Bi logela, sukaldea, despentsa, egongela. Jantzita. Eguzkitsua eta igogailuarekin.
☎ 655 711 334

GARAJEAK

- Garaje itxia alokairuan, Urasandin, Anayak eraikinean. Bi solairu ditu. Autoa gordetzeko edo biltegitzat erabiltzeko aproposa.
☎ 943 742 306
- Garaje murraduna alokairuan Santa Ana kalean.
☎ 667 083 913

BESTELAKOAK

- Bikientzat ume-aulkia erosiko nuke, egoera onean balego.
☎ 696 295 098
- La Unión Caza y Pesca elkarteko bazkide izateko akzioa salgai.
☎ 605 775 325
- Umearen kotxe-aulkia salgai. Jane Belmoral markakoa. Osagarri guztiekin: hamaka, bainera... Sehaska opari. ☎ 646 095 256
- Umeak lotarako darabilen trapuzko panpina galdu dut, Pedro Muguruza eta Lerun artean. Balio sentimental handikoa da. ☎ 636 045 792

KINTOAK

- 1942ko kintoek bazkaria egingo dute azaroaren 10ean, Sigma jatetxean. Interesatuak 45 euro ordaindu behar dituzte, Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0007 24 0071125336

ESKERTZA

MARCELA TRANCHE PORRO



2012ko urriaren 8an hil zen, 105 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Urriak 18, eguena

'GARTXOT' filma Asisko Urmenetarekin

21:30ean Elgoibarko Herriko Antzokian

**Pelikularen ostean
Asisko Urmenetarekin berriketaldia**

Antolatzaileak:





• 3, 4 eta asteartean 5! Zorionak, **Manex**, maita zaitugun guztion partez.



• Etxeko guztien partez, zorionak eta muxu handi bat.



Zorionak, **amumal** On-do pasa eguna, eta patxo bat, denon partez! Mua!



• Zorionak, **Bidatz**, urriaren 9an 7 urte potolo egin zenituelako.



• Zorionak **Oier Arriola**ri, bere hamabigarren urtebetetzean, eta patxo handi bat, Xabiren partez.



• Zorionak, **Mikel**, zure lehen urtetxoa bete duzulako. Muxu handi bat Josuren eta etxeko gainerakoen partez.




• Zorionak, **Ander**, bihar 7 urte! Patxo handi bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Malen**, zure lehenengo urtebetetzean, Leire eta etxekoen partez.



• Iritsi da zuen ezkontza eguna! Zorionak, **Pedro eta Melary**, familiakoen eta lagunen partez.



• Zorionak, **bikote!** Azkenean iritsi da eguna. Egun polita opa dizuegu, eta orain arte bezain zoriontsuak izatea. Familiakoen eta lagunen partez.

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!





ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak

- Credikutzarekin ordaintzeko erraztasunak

5 EGUNEKO TEORIKAKO IKASTARO TRINKOAK

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

11 egüena

Kirola

19:00 Gurasoentzako bilera
CD Elgoibarko Futbol Eskolako gurasoentzako informazio bilera. Kultur Etxean.

12 barixakua

Feria

11:00 Zaporeen feria
Lekueder parkean, domekara arte.

Kirola

12:00 San Pedroko txirindulari igoera
Kalegoen plazatik irtengo dira partaideak. Lagun Taldeak antolatuta.

13 zapatua

Herri argazkia

12:30 EH Bilduren herri argazkia
Kanpainako ekitaldien barruan herri argazkia aterako dute, Kalegoen plazan.

Elkarretaratzea

13:00 Arnaldo Otegiaren aldeko elkarretaratzea
Hiru urte bete ditu Arnaldo Otegi kartzelan, eta haren aldeko elkarretaratzera deitu du herri plataformak.

Hauteskunde kanpaina

18:30 EAJren ekitaldia
Markel Olanorekin trikiti-poteoa. Ondoren, hitzaldia eskainiko du Batzokian, eta gero, afaria egingo dute.

18 egüena

Sari banaketa

19:00 Gure Baloak saria
Debegesak antolatuta, Gure Baloak sariak banatuko dituzte, Inazio Bereziartua musika eskolan.

ZINEA

'Madagascar 3'

12, barixakua: 16:30
14, domeka: 16:30



'El ultimatum de Bourne'

12, barixakua: 19:00/22:15
13, zapatua: 19:00/22:15
14, domeka: 19:00
15, astelehena: 21:30



'Gartxot'

Nafarroa aragoa
18, egüena: 21:30



OKINDEGIA

12 barixakua: EIZAGIRRE 14 domeka: FOTERO

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egüenez

9:00 - 22:00

11 Barrenetxea
12 Zabaleta
13 Garitaonandia
14 Garitaonandia
15 Etxeberria
16 Fernandez
17 Yudego
18 Zabaleta
19 Barrenetxea

Gauetz

22:00 - 9:00

Barrenetxea
Garitaonandia
Garitaonandia
Garitaonandia
Etxeberria
Garitaonandia
Yudego
Barrenetxea
Barrenetxea

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638


Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384



Urriaren 17an
GURASO BILERA
Ludotekan, 19:00etan

Hilabete honetan
PING-PONG TXAPELKETA
Gaztelekuan! Izenemate epea
urriaren 14ra arte.
Urriaren 12an itxita.



30 min
+10tegia

30+10 mintegia hizkuntza-kudeaketa enpresan

Antolatzailea

Makina Erremintaren
Institutua

Kolaboratzaileak

Eusko Jaurlaritz
Gipuzkoako Foru Aldundia
Elgoibarko Udala
Ahize-AEK

Jardunaldiaren edukia:

Mintegiaren sarrera

HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUORDETZA
GIPUZKOAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
ELGOIBARKO UDALA

Hitzaldiak:

Europar Batasuneko enpresa-praktika
eleanitz onenen mapa. LANGUNE.
BUREAU VAN DIJK

Hizkuntza-kudeaketaren garrantzia
enpresen nazioarteratze prozesuetan.
TECNALIA, ELHUYAR AHOLKULARITZA

Management eta hizkuntza-plangintza.
XABIER ERIZE, Soziolinguistikan aditua

Mahai inguruak:

India sozio ekonomiko, lingüistiko eta
kulturala.
AFM, DANOBAT, JUARISTI eta KORTA
ordezkarak.

Lantokiko Prestakuntza eta Txandakako
Lanbide Heziketa euskaraz.
LANBIDE HEZIKETAKO
SAILBURUORDETZA, IKASLAN,
IKASTETXE, ENPRESA ordezkarak.

Elkarrizketa:

BIKAIN hizkuntza-kudeaketaren kalitate
ziurtagiriaren ezarpena enpresan
ANAJE NARBAIZA (ELAY), GALDER
LASUEN (EUSKALIT)

7. EDIZIOA

IMH, Elgoibar

2012/10/24

8:45-14:30

Izen-ematea (beharrezkoa):

www.imh.es - imh@imh.es

Telefonoa 943 74 41 32

IMH, Azkue Auzoa 1 - Elgoibar

Informazio gehiago: www.imh.es



debabarrena gara

www.gurebalioak.com

GURE BALIOAK SARIA 2012

Hirugarren edizioko sari banaketa.

Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolan, urriaren 18an, arratsaldeko 19:00etan.

Denok zaudete gonbidatuta!

Baleztatu etorriko zaren - balioak@debegesa.com - 943 820110 - Ainara Garcia

Ardatzailea:

Debe.esa

Debe.esa, enpresa
Erretzen du. Gure balioak.
Ardatzailea de. Gure balioak.

Laguntzaileak:



DANOBAT GROUP



GORATU



SAN ROKE KALEA, 20
TEL.: 943 744 457
ELGOIBAR
www.textillagunak.com

ATSEDENEAN ETA ETXE-GERIATRIAN ADITUAK

Zatoz!
Zure neurrirako aurrekontua
egingo diguzu!



Gure aukera handitu dugu!
Zatoz eta ikusi
sukaldeko altzari eskaintza!

